

## **BERUALA (Bermeoko Urigintza Barrizatzeko Alkartea)**

### **Kontakturako datuak:**

Helbidea: Andra Mari, 22 48370 Bermeo

Telefonoa: 94 617 91 73

E-maila: [beruala@bermeo.eus](mailto:beruala@bermeo.eus)

### **Xedea:**

Bermeoko herri osoan kokatzen diran eraikuntza pribatuak barrizatzeko obrak, diruz laguntzea da zerbitzu honen helburua; Bai udalak eskaintzen dituen onurak interesdunari bideratuz, bai Eusko Jaurlaritzatik eratorritako diru laguntzak jasotzeko izapidetza jorratuz eta informazioa eskeiniz, herritarrei hobariak lortzeko aukera emoten deutse.

Bermeoko Udalak, hainbat modutan laguntzen deutse Bermeoko herritarrei, euren etxebizitzetan egiten dabezan obretan hobariak lortzeko:

- Zuzenean Bermeoko Udalak eskaintzen dauan onurak bideratuz eta eskeiniz, beti be obrak, alde zaharrear edo Eremu Degradatuan kokatutako eraikuntzetan egiten badira.
- Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dauzan laguntzak jasotzeko tramiteetaz arduratuz, beti be, obrak, alde zaharrear kokatutako eraikuntzetan egiten badira.
- Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dauzan laguntzak jasotzeko informazioa eskeiniz, egin beharreko obrak alde zaharreko erakuntzetan egiten ez badira. Azken kasu honetan egin beharreko jarduera eta tramitazio guztiak interesdunak egin beharko dauz.

BERUALA S.A.-k diru-laguntzak emongo dauz, Eusko Jaurlaritzako 307/2002 Dekretuak edo berau garatu eta aldatzen dabezan arauak ezarritako erispideak jarraituz. Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak emon arren BERUALA S.A.k be emon ahal izango dauz, beraz interesdunak, administrazioan bietatik eratorritako diru-laguntzak jasotzeko aukera eukiko dau.

Aurrekoa izanda bere xede nagusia, BERUALAn ere hurrengoak egiten dira:

- EITeen erregistroa
- ETXEBIDEn lehiatila bakarra
- Bermeoko udalaren Urigintza, Zerbitzu eta Ingurmunen Sailari laguntza teknikoa
- Bermeoko udalaren bulego teknikoaren koordinazioa

### **Kideak:**

**LEHENDAKARIA:** Nadia Nemeh Shomaly

**KONTSEILUAREN DELEGATUA:** Zigor Uriondo Arrue

**LEHENDAKARI ORDEA:** Victor Uriarte Anasagasti

**BOKALAK:** Xabier Ortuzar, Aritz Abaroa eta Idoia Platas

## **Teknikariak:**

- Gerente-Zuzendaria
- Zuzenbidean letradua
- Arkitektoa
- Administrari eta Administrari Laguntzailea

## **ZEREGINAK:**

Erreabilitazio pribaturako aholkukaritza eskaini: eraikuntzaren barneko obrak egin behar diranean

Eusko Jaurlaritzako laguntzak tramitatu

Promozino propioaren kudeaketak

Alde zaharren berreskurapenari buruzko gaien azterketa, PERI eta abar

EITen erregistroa

Promoziozko etxe obrak eta orubeak erostea etxe promozinoak egiteko

Alde zaharreko diru-laguntzak erakunde desberdinetatik. Kudeaketa hasieratik(eskaera), obraren gestioa eta laguntzak kobratzea.

## **Berualako aurrekontua**

[2024rako aurrekontua](#)

## **Informazio gehiagarria:**

[ORUBEEN ERREGISTROAREI BURUZKO](#)

[ORDENANTZEA](#)

[PERHIA OSORIK](#)

[BERUALAKO ESTATUTUAK](#)